



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIEN DATUAK

### 1. KAPITULUA - KONTRATUAREN EDUKIA

<b>OBJEKTUA</b>	Urola Kostako Udal Elkarteko udalerrietan hiri hondakinak (papera, kartoia, pilak eta ontzi arinak) gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzua kudeatzea.
<b>IZAERA</b>	Zerbitzu publikoaren kudeaketa, 2/2000 LEDaren II. Liburuko II. Tituluak arautua.
<b>EGITEKO EPEA</b>	<b>6 urte, urtez urte luzatzeko aukerarekin (gehienez 10 urte arte).</b>
<b>LIZITAZIO PREZIOA</b>	<b>560.000,00 (BEZa barne)</b>
<b>ORDAINTZEKO ERA</b>	Hilero, faktura egin eta hurrengo bi hilabeteen barruan.
<b>PREZIOAK BERRIKUSTEA</b>	KPI
<b>BERMEAK</b>	Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen Behin betikoa, esleitzeko prezioaren %6
<b>BERME EPEA</b>	Urte bat (1).
<b>BESTE BETEBEHAR BATZUK</b>	Erantzukizun zibileko poliza izan behar da. Orain kontratuaren jabe direnek zerbitzuari atxikitako langileen subrogazio eskubidea.
<b>LAGAPENA ETA AZPIKONTRATATZEA</b>	Ez da ezartzen
<b>ZEHAPENAK</b>	Ikus 15. baldintza.

### 2. KAPITULUA - KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

<b>PROZEDURA. ERA.</b>	Lehiaketa irekia. Izapide arrunta.
<b>ESLEITZEKO IRIZPIDEAK</b>	1) Diru-eskaintza 0-45 2) Eskaintzaren kalitate teknikoa 0-45 3) Proposatutako hobekuntzak 0-10
<b>FINANTZA ETA EKONOMIA KAUDIMENA</b>	Finantza erakundeen txostena edo arrisku profesionali aurre egiteko kalte-ordainen aseguruia izatearen egiaztatzea
<b>KAUDIMEN TEKNIKOA</b>	Aurreko hiru urteetan egindako lan edo zerbitzuak, kontratuaren objektu diren lanekin lotura zuzena dutenak. Adierazi behar da kopurua, datak eta onuradun publikoak eta pribatuak. Kontratua burutzeko lehiatzaileak eskura dituen material, instalazio eta ekipo teknikoek buruzko adierazpena.
<b>ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA</b>	<b>Egutegiko 26 egun, GAOn argitaratu ondoren hasita.</b>
<b>ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA</b>	Urdaneta bidea, 6 20800, Zarautz Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

**UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO UDALERRIETAN HIRI HONDAKINAK (PAPERA, KARTOIA, PILAK ETA ONTZI ARINAK) GAIKA BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMAKIDA BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTARZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.**

**LEHENENGO KAPITULUA - KONTRATUAREN EDUKIA**

**1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA IZAERA**

Kontratu honen objektua da Urola Kostako Udal Elkarteko bost udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian) hiri hondakin solidoak (papera, kartoia, pilak eta ontzi arinak) bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa kudeatzea, administrazio-emakida bidez. Udal Elkarteari udalek zerbitzu hori kudeatzeko eskumena eskuordetu diote. Kontratua burutuko da baldintzen orriotan eta eskakizun teknikoaren orrietan finkatutakoaren arabera.

Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kudeaketak zerbitzu publikoaren izaera du lege-ondorio guztietarako. Baldintzen orri hauen argitara gauzatzen den kontratua administrazio emakida bat izango da, ondoren zerbitzua kudeatu ahal izateko, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak (aurrerantzean 2/2000 LED) onartu zuen Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 156 a) artikularekin bat etorritik.

**2.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA**

Kontratua burutzeko epea gehienez sei urtekoa izango da, kontratuaren hasiera-datatik hasita. Dena dela, urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez beste lau urte (guztira hamar urte), bi aldeak berariaz horrela erabakiz gero.

Kontratua garatzen hasteko data 2008ko apirilaren 1a izango dela aurreikusten da.

Kontratua edo izan litezkeen luzapenak amaitzen direnean, kontratazio organoak horrela eskatzen badio, kontratuaren jabeak lanak egiten jarraitu beharko du, gehienez ere sei hilabetez, kontratuaren jabe berria kontratua burutzeko lanak egiten hasi arte. Epe horren barruan zerbitzua eskaintzeko era eta lanaren diru-ordaina izango da kontratuan zehar izandakoa.

**3.- LIZITAZIO PREZIOA**

Gehieneko lizitazio prezioa 560.000 eurokoa da urtean, BEZa barne. Kopuru hori lehiatzaileek hobetu egin ahal izango dute.

Aurkezten diren eskaintzetan sartuta egongo da kontratuaren prezioa, BEZa eta kontratuaren jabeak kontratua burutzeko egin behar dituen zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak.

**4.- FINANTZAKETA**

Atala: 1 4 442.02 227.2 2008



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Kontratu honen esleipenak honako baldintza etengarria du: kontratutik Udal Elkartearentzat eratorritako betebeharrak finantzatzeko 2008ko ekitaldian behar adina kreditu izatea.

Kontratazio espedienteari erantsita dago Udal Elkartearen 2008ko aurrekontu orokorrean behar adina kreditu aurreikusi eta gorde dela adierazten duen ziurtagiria (aurrekontu horri hasierako onespena emana dio Udal Elkarteko Batzar Nagusiak).

Hurrengo ekitaldietan Udal Elkarteak behar adinako aurrekontu kredituak ezarriko ditu esleipendunari ordainketak egiteko. Berrikuspenak direla eta, igoerak onartutako aurrekontu zuzkidura gainditzen badu, kredituak aitortu egingo dira.

## **5.- ORDAINTZEKO ERA**

Zerbitzua jaso eta ontzat jo ondoren, egindako lanen ordainketa egingo da emandako kontratuaren eta gerora onartutako aldaketei atxikita, berdinak diren hamabi ordainketetan (hilean bat), esleipendunak faktura aurkeztu eta Udal Elkarteak onartu eta gero.

Ordainketa banketxeko transferentzia bidez egingo da, kontratuaren jabeak adierazten duen kontura, faktura egin eta bi hilabeteko epearen barruan.

Hileko faktura horri Udal Elkarteak kenketak egin ahal izango dizkio, esleitutako zerbitzuak ez betetzearen, osorik ez betetzearen edo jar litezkeen zehapenen ondorioz.

## **6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honen prezioa berrikusiko da 2/2000 LEDaren 103. artikuluekin eta hurrengoekin eta bere erregelamenduaren (1098/2001 ED) 104 eta 106. artikuluekin bat etorriz, honako arau hauen argitara:

- a) Kontratuaren epearen barruko lehen urtean prezioa ez da aldatuko eta ez da inola ere berrikusi edo eguneratuko.
- b) Bigarren urteko eta hurrengo urteetako prezioa berrikusi egingo da (eta, beraz, igo edo jaitsi), Estatistika Institutu Nazionalak ezartzen duen Kontsumo Prezioen Indize nazionalak Gipuzkoako Lurralde Historikorako ezartzen duen urte arteko portzentaje berarekin.

Berrikusiko dira soilik exekuzio materialeko kostuaren prezioak (pertsonaleko kostuak eta materialen kostuak). Gastu orokorrak eta industria-mozkina ez dira berrikusiko. Portzentaje hori aplikatuko zaie exekuzio materialeko berrikusitako prezioei.

Amortizazioen atalak (ibilgailuak, edukiontziak eta antzeko bitarteko materialak) ez dira eguneratuko.

Baldintza honetan berrikusteko ezarritako kasuez harantzago ez da preziorik berrikusiko, zerbitzuaren kopuruak edo zerbitzua eskaintzeko era nabarmen aldatzen ez bada. Nolanahi ere den, gisa horretako aldaketa nabarmenak Urola Kostako Udal Elkarteak onartu beharko ditu berariaz.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## **7.- BERMEAK**

### **Behin-behineko bermea**

Lehiaketan parte hartzeko ez da behin-behineko bermerik jarri behar.

### **Behin betiko bermea**

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du Urola Kostako Udal Elkartearen alde, hain zuzen ere esleitzeko kopuruaren %6, 2/2000 LEDaren 38.1 artikuluekin bat etorritz.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 15 eguneko izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta jarri ahal izango da Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 35. artikuluan azaltzen diren bideetatik edozein erabiliz.

Bermea ezarri, gauzatu, ondorioak erabaki, erantzukizunak finkatu eta itzuli honakoetan xedatutakoekin bat etorritz egingo da: aipatu testu bateginaren artikulua, 35.etik 47.era, biak barne, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren ( ED) artikulua, 55.etik 65.era, biak barne. 1098/2001).

## **8.- JASOTAKO MATERIALEN JABETZA**

Kontratu honen gai diren zerbitzuen bidez jasotako material guztiak Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak dira, ondorio guztietarako.

Kontratuaren jabeak debekatua du jasotako materialak saltzea edo beste moduren batera baliatzea, material horietan bila aritzea, tartean pilatzea edo manipulatzea. Material horiek jaso diren bezala eraman behar ditu helmugara.

## **9.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK**

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratuaren objektua burutzen eta bideratzen ari dela, kontratuaren jabeak orriotako baldintzak, espedienteari erantsitako eskakizun tekniko orrietan ezarritakoak eta bere eskaintzan egindako hobekuntzak bete behar ditu, betiere Udal Elkartearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolaren pean. Udal Elkarteak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratu honen araubideak ezartzen dituen betebeharrak orokorrez gain, honako betebeharrak zehatzak ere izango ditu:

- Indarrean dagoen eta aplikatzea dagokion araubideak ezarritakoari jarraitu, indarrean dauden eta aplikatzea dagokion udal ordenantzak barne.
- Egin behar dituen inbertsioak egin; kontratua behar bezala eta ezarritako epeetan burutzeko behar diren ekipo eta bitarteko osagarriak atxiki kontratuari; kontratuak dakartzkion betebeharrak betetzeko beharrezko diren langileak kontratatu; hori guztia egin zerbitzua ezarritako maiztasun eta



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

- jarraitasunarekin, ezarritako ordutegietan eta baldintzen orriotan eta eskakizun teknikoen orrietan ezarritakoaren argitara burutzeko.
- Emakidari atxikitako instalazio, makina eta zerbitzuak ez erabili beste ezertarako.
  - Emakida zuzenean burutu, osorik nahiz zati bat beste bati laga gabe, aurrez Udal Elkartearen baimenik izan ezean.
  - Kontratua burutzeko Udal Elkarteak ematen dituen agindu eta jarraibideak bete.
  - Zerbitzua behar bezala burutzen dela zaindu, eta hori lortzeko behar diren neurriak hartu. Lanak egiten direnean ahalik eta kalterik txikiena sortuko zaie herritarrei (bideak ahalik eta gutxien okupatu, ibilgailuen trafikoari ahalik eta oztopo gutxien egin eta abar).
  - Administrazioari edo beste batzuei kalte-ordaina eman eragindako kalte eta galerengatik, kontratuan hutsegite edo akatsak egin badira, bide desegokiak erabili badira eta ondorio okerrak atera badira, Urola Kostako Udal Elkarteak emandako agindu baten ondorio zuzena denean izan ezik.
  - Emakida indarrean dela sortzen diren gorabehera guztien berri Udal Elkarteari eman berehala. Eskaintzan agertzen diren langileen taldean aldatetak egitea Udal Elkarteak onartu egin behar du, eta, Udal Elkarteak horrela eskatzen badu, aurrez esleipendunak izendatu nahi dituen pertsonen curriculum vitaeak aurkeztu beharko ditu. Halaber, esleipendunaren eskaintzako bitarteko teknikoak aldatzea Administrazioak onartu egin behar du, eta esleipendunak aurrez arrazoiak agertzen dituen proposamena aurkeztu beharko du. Udal Elkarteak egoki irizten dituen aginduak eman ahal izango ditu makina eta bitarteko horiek zaindu eta mantentzeko; hori guztia emakidaren jabearen kargura egingo da.
  - Ingurumen Sailari bide eman kontratua kontrolatu eta ikuskatzeko, zerbitzua baldintzen orriotan, eskakizun teknikoen orrietan eta aplikatzekoak diren beste lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera eta eskatutako kalitatearekin burutzen dela egiaztatzeko.
  - Emakidari atxikitako ondasun, instalazio eta ekipamenduak ez saldu eta ez zamatu.
  - Zerbitzua eskaintzeko behar diren baimen administratiboak lortu.
  - Udal Elkarteari argibideak eta informazio eman uneoro balizko edo benetako greba egoeratan, zerbitzuari egoera horrek zer eta nola eragingo dion argitzeko. Greba dela eta, Udal Elkarteak dagozkion kenketak egingo ahal izango ditu esleipendunaren fakturatik, kontratuko betebeharrak zein neurritan ez diren bete eta zerbitzuari zertaraino eragin dion kontuan hartuta. Greba dela eta, esleipenduna izango da beharrezko gutxieneko zerbitzuak bermatzeko arduraduna, indarrean dagoen araubidearen argitara.
  - Kontratututako zerbitzuaren inguruan esleipendunak ezagutu ditzakeen datu guztien nortasuna eta sekretua zaindu; datu horiek isilpekoak dira. Esleipendunak kalte-ordaina emango die Udal Elkarteari eta kalterik jasaten duten pertsoneri isiltasun profesionala haustearen ondorioz gertatutako kalte eta galerengatik. Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du.

Esleipendunaren eta Udal Elkartearen arteko harremanak bideratu eta koordinazio lana egiteko esleipendunak teknikari bat izendatuko du, egitasmoaren arloan gaitasuna duena. Teknikari hori izango da



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

esleipendunaren ordezkotako solaskide eta erantzule nagusi. Udal Elkarteak ezarriko du Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren eta kontratuaren jabearen arteko bilera eta informazio-emateen maiztasuna. Udal Elkarteak pertsona horren ordezkotako beste bat izendatzeko exijitu ahal izango dio esleipendunari, zerbitzuaren onerako.

## **10.- ESLEIPENDUNAREN LAN-BETEBEHARRAK**

Kontratu honen objektu diren lanak egiten dituzten langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta higienezaren eta lan arriskuak prebenitzearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Horrez gain, esleipendunak orain arte kontratu hori eskaini duen enpresak (CESPA, S.A.) gaika biltzeko zerbitzuei atxikitako langileak hartzeko betebeharra du. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango kontratuaren jabeak betebeharrak horiek betetzen ez baditu. Horretarako, Udal Elkarteak lizitatzailerari iragarriko die subrogazio eskubidea duten langileen zerrenda, orain kontratua burutzen ari den enpresak jakinarazitakoaren arabera. Esleipendunak eskuratu beharko ditu kontratua amaitu zaien beste enpresen datuak, betebeharrak horiei aurre egin ahal izateko. (IV. Eranskina).

Esleipendunak emakidari atxikitako langile guztien lan kontratuen kopia aurkeztu behar ditu, egutegiko hamar eguneko epearen barruan, kontratua gauzatzen denetik kontatzen hasita. Halaber, betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko beharko du Udal Elkarteak eskatzen dion bakoitzean.

## **11.- SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO BETEBEHARRAK**

Esleipendunak azaroaren 8ko 31/1995 Legea (laneko arriskuen prebentzioa), urtarrilaren 30eko 171/2007 Errege Dekretua (aipatutako lege horren 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioaren atala, garatzen duena) eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden bestelako xedapenak bete behar ditu, baldintzen orri hauen V. eranskinean ezarritakoaren bat etorritik.

## **12.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Esleipendunaren ardura da lanak egitearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Esleipendunak erantzukizun zibileko poliza bat eduki behar du kontratuak irauten duen epe osorako (luzapenak barne baleude), gutxienez 600.000 euroko kapitalarekin, zerbitzua burutzen ari dela gerta litezkeen gorabeherei aurre egiteko. Poliza horretan aseguratuko gisa Urola Kostako Udal Elkarteak agertuko da.

## **13.- AZPIKONTRATATZEA**

Kontratuaren objektuaren zati bat beste bati kontratatzeari dagokionez, 2/2000 LEDaren 115 eta 170. artikuluetan ezarritakoa hartuko da kontuan. Aipatutako azken artikulua horrek ezartzen duenaren arabera, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan zerbitzuaren osagarriak soilik kontratatu litezke beste bati.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Horrela eginez gero, idatziz jakinaraziko zaio Administrazioari kontratuaren zein zati kontratatuko zaion beste bati.

#### **14.- KONTRATUA ALDATZEA**

Kontratua aldatzeko 2/2000 LEDaren 59, 101 eta 163. artikulua eta horiekin bat egiten dutenak hartuko dira kontuan.

Emakidaren epearen barruan Udal Elkarteak esleipendunari exijitu ahal izango dio eta esleipendunak Udal Elkarteari eskatu, kontratuaren hasierako eremuko lanak eta zerbitzuak gehitzeko, edo kontratuaren eremuan lanak aldatzeko edo beste zerbitzu batzuk eskaintzeko.

Egoki iritzitako aldaketak burutzeko lan ezberdinetako lan mota edo lan multzo bakoitzaren unitate prezioak hartuko dira aintzat, onartzeko unean indarrean daudenak.

Lanak gehitu eta lan horien unitate prezioa ezin bada esleitzeko irizpideen arabera finkatu, prezio kontrajarriak ezarriko dira, Udal Elkarteak eta kontratuaren esleipenduna ados jarrita.

Enpresa esleipendunak proposatutako bitarteko teknikoak (giza baliabideak nahiz bitarteko materialak) zerbitzuaren emakidaren epe osoaren barruan erabili ahal izango dira ingurumen edo hondakinak gaika biltzeko gaietan Udal Elkarteak bideratutako ekimenen ondorioz zerbitzu horietan sortzen diren gorabeherei aurre egiteko.

#### **15.- ESLEIPENDUNAREN ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIK**

Emakidaren jabeak baldintzen orri hauetan edo eskakizun teknikoen orrietan ezarritako baldintzak eta Udal Elkarteak esleitutako zerbitzuak hobeto burutzeko emandako aginduak betetzen ez baditu, Udal Elkarteak jarraian adierazten diren zehapenak jartzeko eskumena izango du, kontratua ez betetzeagatik indarrean dagoen araubideak ezartzen dituen eginbideei kalterik egin gabe.

Emakidaren jabearen arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Berariaz aipatzen ez diren arau-hausteak sailkatuko dira zehaztuta doazenekiko analogiaren bidez. Arau-hausteak kalifikatzea Udal Elkarteari dagokio, aurreko ataletan agertzen ez direnak barne.

Udal Elkarteak kontratuaren jabeari zehapenik ez jartzea erabaki ahal izango du, kontratuaren jabearen edo bere langileen esku ez dauden justifikatutako arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuengatik aurreikusitako zerbitzuren bat burutzea ezinezkoa dela jakinarazten badu. Horrela gertatuz gero, egin gabeko lanen zenbatekoa kenduko zaio dagokion ordainketari, betiere hutsunea konpontzeko beharrezko neurriak berehala hartzen baditu.

Zehapenak, irmoak baldin badira, kontratuaren jabeari ordaindu beharreko hurrengo fakturatik kenduko zaizkio, edo bestela, behin-betiko bermetik. Azken kasu honetan kontratuaren jabeak behin-betiko bermea birdoitu egin beharko du.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Zigorra jartzeko arrazioa lanen bat ez egitea edo oker egitea baldin bada, prezioaren ordainketaren kopurua murriztu egingo da, ezarritako lanetatik egindako lanetara doan ehunekoan.

Kontratua ez betetze horrek kontratuaren esleipendunari onuraren bat ekartzen badio, zigor ekonomikoari jasotako onuraren zenbatekoa gehituko zaio, horretarako bideratzen den zehapen-espeditentean ezartzen denaren argitara.

Prozedura Udal Elkarteak izapide dezake, ofizioz edo hirugarren baten salaketaren ondorioz.

Zehapenen kopurua eguneratu egingo da urtero, argitaratzen den Euskal Autonomia Erkidegoko urteko KPIaren bariazioaren argitara

#### **a) Arau-hauste oso larriak. Zehapenak**

Honako hauek dira arau-hauste oso larriak:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Emakida beste bati lagatzea edo azpikontratatzea, Administrazioak alde aurretik baimenik eman gabe.
- Egindako inbertsioen bidez kontratuari atxikitako bitarteko materialak beste jarduera batzuetarako edo baimendu gabeko jardueretarako erabiltzea.
- Zerbitzua eskaintzeko lanak gelditu edo etetea 48 ordu edo gehiagoz, kontratuaren jabearen erruagatik.
- Emakidari atxikitako bitarteko materialak zaindu gabe eduki edo funtzionamendu egoera txarrean egotea, zerbitzuari kaltea eraginez.
- Zerbitzu nabarmen oker edo era irregularrean eskaintzea.
- Udal Elkarteak zerbitzuak eskaintzeko ematen dituen arau eta aginduak eta, oro har, lanak egiteko era zehazten duten arauak ez betetzea.
- Udal Elkarteak lanak ikuskatu eta zaintzeko eginkizunari oztopoak jarri edo ezezkoa ematea.
- Bildutako materialak Udal Elkarteak baimendu gabeko lekuetara eramatea.
- Enpresaren kudeaketarekin zerikusia duten dokumentuak faltsutzea.
- Oro har, kontratuaren jabeak kontratuaren oinarritzko betebeharrak ez betetzea.

Arau-hauste oso larria eginez gero hauetako zehapen bat jarriko da:

- Diru-isuna, 6.000,00 eta 30.000,00 euro artekoa (kopurua arau-haustearen larritasunaren arabera finkatuko da).
- Emakidaren amaiera, iraungitzeagatik.





UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Kontratua ez betetzeagatik Udal Elkarteak emakida amaitutzat jotzen badu, aurrez emakidaren jabeak entzunaldi eskubidea izango du. Iraungitzearen ondorioz, emakidaren jabeak, alde batetik, behin betiko bermea galduko du, eta, beste alde batetik, kontratua amaitzeagatik Administrazioari eta zerbitzuen erabiltzaileei eragindako kalteengatik ordaina emateko betebeharra izango du. Horri dagokionez, Toki Erakundeen Zerbitzuen Erregelamenduaren 137. artikulua aurreikusten dituen ondorioak aplikatuko dira, eta bere jabetzara pasatzen diren bitartekoen amortizazioa kenduta ateratzen den kopurua ordaindu beharko du.

#### **b) Arau-hauste larriak. Zehapenak**

Honako hauek dira arau-hauste larriak:

- Arau-hauste arinak egitea, hiru edo gehiago.
- Kontratuaren jabeak zerbitzuei atxikitako langileek bizilagunekin gorabeherak izatea.
- Biltzen diren hondakinak hartu behar dituzten helmuga-zentroetako (paper eta kartoi biltegia, ontzi arinak sailkatzeko planta, zabortegia eta abar) arduradunek emandako agindu edo jarraibideak ez betetzea.
- Udal Elkarteak eskatutako lan-txostenak eta bestelako txostenak garaiz ez aurkeztea edo behar bezala ez aurkeztea; zerbitzua kudeatu eta kontrolatzeko Udal Elkarteak emandako tresna informatikoak oker erabiltzea; atzemandako akatsak ez komunikatzea; eskatutako informazioa ez ematea edo egiazko datuak ez ematea.
- Zerbitzua eskaintzeko behar diren segurtasun dispositiboak ez jarri edo erabiltzea.
- Aurreikusitako ibilbideak behin eta berriz aldatzea.
- Ezarritako ordutegia behin eta berriz ez betetzea.
- Emakidari atxikitako ondasun eta instalazioak zaintzen arduragabekeriaz jokatzea, edo ez ordezkatzeta.

Arau-hauste larria eginez gero hauetako zehapen bat jarriko da:

- Diru-isuna, 1.000,00 eta 6.000,00 euro artekoa (kopurua arau-haustearen larritasunaren arabera finkatuko da).
- Emakida interbenitzea, indarrean dagoen Toki Erakundeen Zerbitzuen Erregelamenduaren 133. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren arabera.

Administrazioak emakida interbenitzea erabakiko du, aurrez emakidaren jabeari entzunaldi eskubidea emanda, arau-hausteak zerbitzua eskaintzea eta behar bezalako kalitatearekin eskaintzea arriskuan jartzen badu.

Hori gertatuz gero, Administrazioak zuzenean kudeatuko du zerbitzua, emakidaren jabearen langileak eta materialak erabiliz; interbenzio-aldiaren amaieran epe horretan izandako sarrerak eta gastuak emakidaren jabearekin kitatuko ditu.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Interbentzio-aldiaren iraupena hiru hilabetekoa izango da gehienez.

### **c) Arau-hauste arinak. Zehapenak**

Arau-hauste arina izango da baldintzen orriotan eta eskakizun teknikoen orrietan finkatutako betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez daudenak.

Arau-hauste arina eginez gero hauetako zehapen bat jarriko da:

- Emakidaren jabeari ohartarazpena egitea, kontratuaren betebeharrak zehatz-mehatz betetzeko.
- Diru-isuna, 100,00 eta 1.000,00 euro artekoa (kopurua arau-haustearen larritasunaren arabera finkatuko da).

## **16.- KONTRATUA AMAITZEA**

Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua amaituko da bete delako edo amaitutzat jo delako.

Kontratua bete ondoren zerbitzua administrazioaren esku geldituko da, 2/2000 LEDaren 164. artikuluekin bat etorritik.

Kontuan hartu den amortizazio epea 10 urtekoa da. Beraz, kontratua burutzeko epea amaitutakoan (sei urte) zerbitzua administrazioaren esku gelditzen bada, Udal Elkarteak bere gain hartuko du amortizatzeke gelditzen dena, eta material guztia Udal Elkartearen jabetzako bilakatuko da. Alabaina, baldintzen orriotako bigarren baldintzan ezarritakoaren arabera, epea luzatu egiten baldin bada, zerbitzua Udal Elkartearen esku geldituko da esleipendunari inolako ordainik eman gabe.

Kontratua amaitutzat joko da honako kasuetan: kontratua ez betetzeagatik, baldintzen orriotako baldintzak ez betetzeagatik edo 2/2000 LEDaren 111 eta 167. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik, testu bereko 169. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

## **17.- BERME EPEA**

Garantia epea urte batekoa izango da, zerbitzua administrazioaren esku gelditzen denetik hasita.

Berme epe horretan kontratuaren jabea izango da egindako lan edo zerbitzuetan atzemandako akats edo okerren erantzule.

Epe hori igaro eta Administrazioak ezer adierazten ez badu, amaitutzat joko da esleipendunaren erantzukizuna.

## **18.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK**

Udal Elkarteak, zerbitzua kontratatzen duen administrazioa denez, honako eskubideak izango ditu:

- Emakidaren jabearen kudeaketa fiskalizatzea, egoki irizten dituen kontratuaren objektuaren gaineko ikuskatze-lanen bidez.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

- Zerbitzua behar bezala kudeatzeko egoki irizten dituen jarraibide eta aginduak ematea.
- Interes publikoa dela eta, zerbitzua eskaintzeko leku, denbora, kopuru edo kalitatean aldaketak egitea, eta emakidaren jabeari diru-ordaina ematea horrek kontratuaren ekonomia aldatuko balu.

Eta, oro har, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Udal Elkarteak ikuskatze eta zaintza eginkizun horiek burutuko ditu horretarako izendatzen duen edo dituen teknikariaren edo teknikarien bidez.

Teknikari horiek era iraunkorrean fiskalizatu ahal izango dute emakidaren jabearen kudeaketa, besteak beste, lanak, instalazio eta lokalak, emakidarekin lotutako dokumentazioa, eta emakidari atxikitako langileak eta bitartekoak. Halaber, teknikari horiek aginduak eman ahal izango dizkiote emakidaren jabeari zerbitzuak behar bezala bideratzeko, eta horrek bete egin beharko ditu derrigorrez.

Kontratazio organoek kontratua interpretatzeko, aldatzeko, amaiera emateko eta ondorioak erabakitzeke ematen dituzten erabakiak berehala betearaziko dira.

Erabaki horien aurka azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 107. artikulua aipatzen dituen errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira, bidezko diren kasuetan.

## **BIGARREN KAPITULUA - KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **19.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena lehiaketa irekiaren bidez egingo da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 73, 74, 75 eta 159. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Ondorioz, Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 87. artikulua ezarritakoa kontuan hartuz, lehiaketa hori iragarri egingo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

### **20.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA.**

Espedientearen izapidetzea arrunta izango da.

### **21.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Kontratazio organoak honako irizpideetan oinarrituko du esleipen erabakia, garrantzia handiena duenetik txikiena duenera, bakoitzak dagokion haztapenarekin:

#### **a) Diru-eskaintza: 45 puntu**



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Diru-eskaintzak honako puntuazio sistemaren arabera baloratuko dira:

- Ez da onartuko baldintzen orriotako 3. baldintzan ezarritako lizitazio prezioa gainditzen duen eskaintzarik.

- Ontzat jotako diru-eskaintzak honela haztatuko dira:

Puntuazio altuena (45) lortuko du eskaintzarik onenak. Gainerako eskaintzak honela puntuatuko dira: puntuaziorik onena ken beharpenaren ehunekoaren eta eskaintzarik merkeenaren arteko aldeak ematen dituen puntuak.

Eskaintza baten "beherapena" honela aterako da: ehun eta lizitazio prezioarekiko eskaintza bakoitzak duen ehunekoaren arteko aldea:

$$100 \times (1 - \text{proposamena} / \text{lizitazioa})$$

Beharpenik handieneko proposamenari (A beharpenari) puntu kopuru handiena emango zaio, 50 puntu. Beste proposamenak eragiketa honen bidez haztatuko dira:

$$45 - (\text{Aren beherapena} - \text{Bren beherapena})$$

Eragiketa horren emaitza negatiboa baldin bada puntuazioa 0 (zero) izango da.

#### **b) Eskaintzaren kalitate teknikoa: 45 puntu**

Proposatutako lan moldearen kalitatea eta ondorioak, zerbitzua ahalik eta errentagarritasun handienarekin eta kalitaterik onenarekin eskaini ahal izateko. Zerbitzu teknikoek eskaintzak baloratzeko kontuan hartuko dituzte bitarteko materialen eta giza baliabideen arteko egokitasuna, eskaintza eta lanen egitarau zehatza.

Horretarako, lehiatzaileek memoria bat aurkeztu behar dute, eskakizun teknikoen orrietan adierazitako alderdiak xehetasunez azalduz, hala nola:

2/2000 LEDaren 86.2 artikulua ezarritakoaren arabera, lehiatzaileek 25 puntu eskuratu behar dituzte gutxienez atal honetan, lehiaketan jarraitu ahal izateko.

#### **c) Proposatutako hobekuntzak: 10 puntu**

Derrigorrezkoak diren lan edo zerbitzuez harantzago eskaintzen diren zerbitzu gehigarriak edo hobekuntzak baloratuko dira, betiere eskaintzaren prezioa aldatu gabe.

## **22.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute administrazioarekin kontratatzeke legeak ezarritako baldintza orokorrak eta jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun juridikoa duten eta ekonomia, finantza, teknika eta lanbide kaudimena egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoeak.

Ezingo dute Udal Elkartearekin kontraturik egin Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako arrazoi edo egoeraren batean dauden pertsonen.

Halaber, eskaintza aurkeztu ahal izango dute kontratu honen objektua burutzeko aldi baterako elkartzen diren enpresek, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 24. artikulua xedatzen duenaren arabera. Elkartearen osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna eta sailkapena egiaztatu behar du, horretarako aurkeztu behar diren agiriei buruzko baldintzetan ezarritako agiri guztiekin. Horrez gain, agiri pribatu batean, honakoak adieraziko dituzte: eskaintza sinatzen duten enpresarioen izenak, bakoitzaren parte-hartzea, kontratua indarrean legokeen epearen barruan administrazioaren aurrean guztien ordezkari gisa jardungo lukeen enpresa edo pertsonaren izendapena, kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharrak gauzatzeko nahikoa ahalmen izango lukeena, eta aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa. Agiri hori elkarteko enpresa guztietako ordezkariak sinatu behar dute. Aldi baterako enpresa elkartearen eskritura publikoa egin beharko da soilik kontratua elkarte horri esleitzen bazaio.

### 23.- PROPOSAMENAK

Proposamenak isilpekoak dira eta Urola Kostako Udal Elkarteak beharrezko bitarteko guztiak jarriko ditu isilpekoak izateko lizitazio publikoa egin arte.

Eskaintza aurkezteak adierazten du lehiatzaileak baldintzarik gabe eta inolako salbuespenik gabe onartzen dituela baldintzen orriak, eskakizun teknikoaren orriak eta kontratuaren beste agiri guztiak. Halaber, adierazten du aurkezten dituen datu guztiak egiazkoak eta zehatzak direla eta zerbitzua kontratatzeke ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Lehiatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Gainera, eskaintza aurkeztu badu ezingo du aldi bateko elkarte bateko kide gisa beste eskaintzarik aurkeztu, ez eta aldi bateko elkarte batean baino gehiagotan parte hartu ere. Baldintza horiek ez betetzeak sinatzen dituen proposamen guztiak baztertu eta balio gabetzea ekarriko du.

Lehiatzaileek proposamena itxitako hiru kartazaletan aurkeztu behar dute, kartazal bakoitzean izenburu hau jarrita: ***"Urola Kostako Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan hiri hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoa kudeatzeko lehiaketan parte hartzeko proposamena."***

C kartazaleko agiriak paperean eta euskarri informatikoan aurkeztu behar dira.

Kartazal bakoitzaren azalean enpresaren izena edo proposamena egiten duenaren izen-abizenak idatziko dira, eta sinatu egingo ditu (hiru kartazalak) lehiatzaileak edo haren ordezkariak.

Horrez gain, kartazal bakoitzak zein eduki duen adieraziko du azalean:

- **"A kartazala: kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena"**
- **"B kartazala: diru-eskaintza"**
- **"C kartazala: agiri teknikoak"**

Kartazal horiek honako agiriak izango dituzte barruan:



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

"A kartazala: kontratatze gaitasuna eta kaudimena"

- 1) Enpresarioaren gaitasun juridikoa egiaztatze agiriak, eta, ordezkariarenak, ordezkari bidez jardungo balu.
  - Proposamena aurkezten duen pertsonaren (bere izenean nahiz ahalordearekin) Nortasun Agiri Nazionala.
  - Lehiatzailea pertsona juridikoa baldin bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko du eratzeko edo aldatzeko eskritura aurkeztuz. Eskritura hori Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta egongo da, horrela baldin badagokio. Horrez gain, identifikazio fiskaleko txartela aurkeztuko da, IFZ agertzen duena.
  - Besteren izenean proposamena sinatzen edo aurkezten duten pertsonen aldeko askietsitako ahalordea. Lehiatzailea pertsona juridikoa baldin bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da. Ahalordea egintza jakin baterako baldin bada, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1 artikuluekin bat etorritz.
  - Eskaintza enpresa elkarte batek egiten badu, elkarte osatzen duten enpresa guztietako legezko ordezkariak sinatutako agiria aurkeztuko da, honakoak adierazten dituenak: aldi baterako enpresen elkartean kide bakoitzak duen parte-hartzea eta kontratuak irauten duen epearen barruan administrazioaren aurrean enpresa guztien ordezkari gisa jardungo lukeen pertsonaren izendapena.
- 2) Ekonomia, finantza, teknika eta lanbide kaudimena egiaztatze agiriak, era honetara:
  - Enpresarioarekin lan egiten duen finantza erakunde batek egindako ziurtagiriarekin, eta adieraziko du data horretan enpresario horrek ekonomia kaudimen nahikoa duela Urola Kostako Udal Elkartearekin orrion objektu den zerbitzua kontratatze, administrazio baldintza zehatzen eta eskakizun teknikoaren orrietan ezarritakoaren arabera. Bestela, enpresarioak lanbide arriskuen kalte-ordain aseguru baduela adierazten duen egiaztagiria aurkez dezake.
  - Aurreko hiru urteetan egindako lan edo zerbitzuak, kontratuaren objektu diren lanekin lotura zuzena dutenak. Adierazi behar da kopurua, data eta onuradun publikoak eta pribatuak.
  - Adierazpena, honakoak adieraziz: kontratua burutzeko lehiatzaileak eskura dituen materialak, instalazioak eta ekipo teknikoak.
- 3) Erantzukizuneko berariazko adierazpena, I. ERANSKINAREN arabera egina, proposamena sinatzen duena nahiz ordezkariaren duen sozietatea administrazioarekin kontratatze ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 20. artikulua adierazitako debeku egoeratan ez dagoela adierazten duena.
- 4) Indarrean dauden lege-xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela egiaztatze agiriak. Horretarako aurkeztu behar ditu Ogasun Departamentuaren egiaztagiria eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko Probintziako Zuzendaritzaren egiaztagiria.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Halaber, aurkeztu behar da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta (indarrean dagoen ekitaldikoa) edo azken ordain-agiria, kontraturen objektuaren epigrafearen barruan, eta erantzukizunpeko adierazpena, zerga horren matrikulan ez dela baja eman adierazten duena.

5) Kartazalean sartutako agiri guztien zerrenda (zenbakiekin ordenatuta) dakarren agiria.

Agiri horiek jatorrizkoak izan behar dute, edo indarrean dagoen araubidearen arabera jatorrizkotzat jotzen diren kopiak.

\* **OHARRA:** Euskadiko Autonomia Erkidegoko edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko ziurtagiria (indarrean dagoena) aurkezten bada, ez da aurkeztu beharko ziurtagiri horretan zehazten den agiririk, betiere agiri horiek berariaz ziurtagirian agertzen badira eta agiri horien balioa eta indarraldia aditzera ematen duen zinpeko aitorten bat eransten baldin bada.

Europar Batasunekoak diren eta espainiarrak ez diren enpresek, nahiz atzerrikoak diren beste enpresek, "A" kartazalean aurkeztu behar dituzten agiriei dagokienez, baldintzen orriotako III eranskinean zehaztutakoa hartuko da kontuan.

### **"B kartazala: diru-eskaintza"**

Proposamen ekonomikoa eta diru-eskaintza baldintzen orrion **II. ERANSKINEKO** ereduaren arabera aurkeztu behar da. Diru-eskaintzan adierazten den kopuruan sartuta egongo dira gastu guztiak, lizitazio gastuak barne (besteak beste, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialekoak), zerga guztiak (BEZa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, barne), baita kontratua indarrean dagoela ezar litezkeenak ere.

Kontzeptu horiek ezingo dira gero inola ere kontzeptu edo partida bereiz gisa aurkeztu.

Diru-eskaintza bat eta bakarra izango da; alabaina, agiri teknikoetan zehatz mehatz azalduko diren kontzeptu hauek guztiak sartuta egongo dira, eskakizun teknikoen orriek ezartzen duten bezala:

- zerbitzu publikoa bideratu eta ustiatzeko behar diren bitarteko materialetan egin behar diren inbertsioen aurrekontua; lehiatzaileak, beharrezko jotzen dituen bitarteko materialen unitate bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditu (egilea, marka, modeloa, ezaugarri teknikoak eta abar), bere lan eskarmentuan eta ezagupenetan oinarrituta, kalitatearen eta prezioaren arteko oreka eta kontratuaren objektuarekiko egokitzapena kontuan hartuta, zerbitzu publikoa eraginkortasunez eta kalitaterik handienarekin ustiatzeko, eskakizun teknikoen orrietan jasotako alderdi bakoitzean eta guztietan. Lehiatzaileak eskaintza egingo du Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzu publikoari era eskusiboan atxikitako materialean oinarrituta.

Adieraziko dira materialen unitate bakoitzaren unitate prezioa, aurreikusitako unitate kopurua eta horiek eskuratzeko gastu osagarri guztiak.

- eta, zerbitzua **ustiatzeko** aurrekontua. Zerbitzu publikoa ustiatzeko beharrezko den aurrekontu adieraziko da, eskakizun teknikoen orrietan ezarritako baldintzak betez, antolamenduari, bitartekoei eta langileei buruz ezarritakoak eta aurrez aipatutako bitarteko materialak kontuan hartuta.

Aurrekontu hori honako kontzeptu hauetan banatuko da:

**Exekuzio materialaren kostua**, honako hauen baturak emana



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

**Pertsonaleko kostuak**, kontratuaren objektua burutzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten langileenak. Honakoak sartuko dira: kategoria bakoitzaren kostuak (oinarrizko lansariak, osagarriak, gizarte aseguruak eta abar), kontratatutako langileen ordezkapenak (oporreatatik, bajengatik eta abar), ustekabeko bestelako bajak eta beste edozein arrazoiren ondorio diren lanuzteak.

**Materialen kostuak**, zerbitzua ustiatzeko beharrezko diren bitarteko materialak (instalazio nahiz ibilgailuak) zaindu eta mantentzeko kostuak, hala nola: erregaiak, elektrizitatea, langileen aldagelak, segurtasuna, lan prebentzioa eta lan osasuna, komunikazio sistemak eta abar.

**Gastu orokorrak eta industria irabazia (%):** kontzeptu horiek exekuzio materialaren kostuei aplikatuko zaizkie (BEZa sartu gabe).

### **“C kartazala: agiri teknikoak”**

Kartazal horretako agiriak paper euskarrian eta euskarri digitalean aurkeztu behar dira.

- 1) Memoria teknikoa, eskakizun teknikoen orrietan eskatzen diren agirietan ezarritakoaren arabera: eskaintzen den zerbitzua burutzeko era eta moduaren azalpena eta justifikazioa, horretarako erabiliko diren giza baliabideak eta bitarteko materialak.
- 2) Baldintzen orrietako 21. baldintzan zehaztutako esleitzeko irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.

Lehiatzaileek beren eskaintza hobeto baloratzeko egoki iriztitako bestelako datu eta erreferentziak aurkeztu ahal izango dituzte.

Urola Kostako Udal Elkarteak aukera izango du, kontratua esleitu aurretik nahiz ondoren, proposamenaren edukia egiaztatzeko. Enpresak datu faltsuak aurkeztea kontratua esleipendunaren errua dela eta amaitutzat emateko arrazoi izan daiteke. Hori gertatuz gero, behin betiko bermea galduko luke edo oraindik jarri gabe balego haren kopuru bereko kalte-ordaina eman beharko luke.

## **24.- ESKAINTZAK AURKEZTEA**

Proposamenak Urola Kostako Udal Elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 9:00etatik 13:00etara, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusten duen beste edozein bide erabiliz. Proposamenak aurkezteko epea egutegiko hogeita sei (26) egunekoa da, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Egun hori larunbata, igandea edo jaieguna balitz, epea hurrengo egun baliodunean amaituko litzateke.

Lehiatzaileak proposamena postaz bidaltzen bada, zein egunetan bidali duen egiaztatu behar du postetxean eta kontratazio organoari proposamena bidali duela jakinarazi behar dio egun horretan bertan telefax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira eta proposamena kontratazio organoarengana epea amaitu ondoren iristen bada, proposamena ez da onartutzat joko. Nolanahi ere den, epea amaitu eta hurrengo hamar (10) eguneko epearen barruan proposamena iristen ez bada ez da inola ere onartuko.

Proposamena aurkeztu ondoren ezingo da inola ere atzera egin.





UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## 25.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia honela osatuko da:

- a) Mahaiburu: Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria.
- b) Mahaikideak:

Udal Elkarteko lehendakariorde bat.  
Udal Elkarteko Ingurumen Saileko arduraduna.  
Udal Elkarteko behin-behineko idazkari-kontuhartzailea.

- c) Idazkaria: Udal Elkarteko behin-behineko idazkari-kontuhartzailea.

Horrez gain, beste teknikari batzuk ere parte hartu ahal izango dute, gaia dela eta aholkulari gisa aritzeko, kontratazio mahaiak horrela erabakitzen badu. Kontratazio mahaiak, kontratua esleitzeko helburuarekin, ahalmena izango du beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak egiteko eskatzeko.

## 26.- ESKAINTZAK IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak lehendabizi, aurkeztutako agiriak epearen eta formaren arabera aztertuko ditu, eta, forma edo gai aldetik akatsak atzematzen baditu, gehienez hiru (3) laneguneko epea eman ahal izango du, egoki irizten badu, lehiatzaile horrek akatsak konpon ditzan.

Jarraian, 1098/2001 EDaren 82. artikuluaekin bat etorritik, "A" kartazaleko agiriak egiaztatuko dira eta, aurkeztutako agiritan leudekeen hutsune eta hutsegiteak konpondu ondoren, kaudimen ekonomiko eta teknikoko irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko dira; berariaz adieraziko dira lehiaketan parte hartzeko onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako eginbideak amaituta, lehiaketan onartutako lehiatzaileen "B" kartazalak (diru-eskaintzak) irekiko dira, ekitaldi publikoan; ekitaldi hori izango da eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo astearte edo ostegunean, 13:00etan, betiere aurkezteko epea amaitu eta astearte edo ostegun horren artean hiru lanegun baldin badaude. Eskaintzak Urola Kostako Udal Elkartearen egoitzan irekiko dira (Urdaneta bidea 6, Zarautz).

Ez dira onartuko datu kontrajarriak, akatsak, hutsuneak edo zirriborroak dituzten proposamenak, horrek administrazioaren ustez proposamena baloratzeko funtsezkoa dena argi eta garbi jakitea galarazten badu edo ezarritako eredia nabarmen alde batera uzten badu.

Diru-eskaintzak irakurri eta kontratazio organoari esleitzeko proposamena egin aurretik, kontratazio mahaiak egoki iriztitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu. Halaber, kontratazio mahaiak eskaintzak baloratuko ditu baldintzen orriotan finkatutako irizpideen argitara, garrantzia handienetik txikienera haztatuta.

Kontratazio mahaiak Kontratazio Organoari helaraziko dizkio lehiatzaileen proposamenak, akta, esleipen proposamena eta horrekin doazen agiri teknikoak eta egoki iriztitako oharra.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Kontratazio organoak kontratua abantaila gehien eskaintzen dituen proposamenari esleituko dio, 21. baldintzan ezarritako esleitzeko irizpideak kontuan hartuta. Dena dela, lehiaketa esleitu gabe ere utzi ahal izango du. Hori eginez gero, esleitu gabe uzteko erabakia arrazoitu eta oinarritu egin beharko du, lehiaketa esleitzeko irizpideen argitara.

## **27.- ESLEIPENDUNARI ESKATZEN ZAIZKION AGIRIAK**

Kontratua behin betiko esleitu ondoren, esleipendunak honako agiriak aurkeztu behar ditu egutegiko hamabost (15) eguneko epearen barruan, esleipena jakinarazten denetik kontatzen hasita:

- Baldintzen orriotako 7. baldintzan aurreikusitako behin betiko bermea jarri izanaren egiaztatzea.
- Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren jabe dela egiaztatzeko agiriak, bere jardura dela eta eragin ditzakeen kalteei aurre egiteko.
- Industria-arriskuen poliza bat baduela egiaztatzeko agiriak, instalazio finkoetako arriskuen kalteak estaltzeko (sutea, ura, lapurreta, kalte elektrikoak eta abar).
- Esleipendunak egiaztatu behar du Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko lizitazio eta esleipen iragarkiak ordaindu dituela.
- Emakidari atxikitako langile guztien lan kontratuen kopiak.

Esleipenduna enpresa elkarte bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik aldi baterako enpresa elkarte gisa eratu dela egiaztatu eta elkarte horren IFZ aurkeztu beharko du.

## **28.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA**

Kontratua esleituko da kontratazio organoaren esleipen erabakiaren bidez.

Kontratua administrazio-agiri gauzatuko da egutegiko hogeita hamar (30) eguneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita. Agiri hori bere baitan aski izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Dena dela, esleipendunak eska dezake kontratuaren eskritura publikoa egiteko. Horrela baldin bada, eskritura hori formalizatzeko gastuak esleipendunak ordainduko ditu.

Esleipendunaren errua dela eta ezarritako epearen barruan kontratua gauzatzen ez bada, Administrazioak kontratua amaitutzat jo ahal izango du (aurrez interesdunari entzunaldi eskubidea emanez) eta eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina eskatu ahal izango du. Kontratua amaitutzat joz gero, Administrazioak hurrengo lehiatzaileei esleitu ahal izango die kontratua, eskaintzek lortutako puntuazioaren arabera, esleipendun berria bat baldin badator.

Udal Elkarteak prozedura berbera erabili ahal izango du esleipenaren helburua baldin bada hasi eta amaitutzat emandako kontratuari jarraipena ematea.

Aurkeztutako proposamenak (onartutakoak, ireki gabe baztertutakoak nahiz ireki ondoren baztertutakoak) espedientearen gordeko dira. Kontratua esleitu, errekurtsioak aurkezteko epeak igaro eta errekurtsorik



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

aurkezten ez bada, interesdunek proposamenekin batera aurkeztutako agiriak eskuratu ahal izango dituzte. Horrela ez baldin bada, Udal Elkarteak agiri horiek deuseztu egin ahal izango ditu, diru-eskaintzak izan ezik, horiek beti gordeko baitira

## **HIRUGARREN KAPITULUA - IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

### **29.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintzen orrion argitara burutzen den kontratuak administrazio izaera izango du eta honako hauek arautuko dute:

- Administrazio baldintza zehatzen orriok.
- Eskakizun teknikoaren orriak.
- Urola Kostako Udal Elkarteak eta esleipendunak sinatzen duten kontratu-agiria.
- Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 16koak, onartu zuena.
- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, onartu zuena.
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki Erakundearen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena, 2/2000 LED eta 1098/2001 EDak ezarritakoaren aurka egiten ez badu.
- Administrazio kontratuak arautzen dituzten bestelako xedapenak, aplikatu daitezkeenak.
- Bestela eta horien ordean, administrazio zuzenbideko arau orokorrak, eta, besterik behar balitz soilik, zuzenbide pribatukoak.

Kontratuaren esleipendunak aplikatutako araubidea ez ezagutzeak ez du araubide hori bete beharretik salbuesten.

Administrazio baldintza zehatzen orri hauek eta espedientea osatzen duten beste agiri teknikoak elkarren aurka baldin badaude, orriotan ezarritakoa hartuko da kontuan.

### **30.- JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratua interpretatzearen, aldatzearen, amaitutzat ematearen eta horren guztiaren ondorioen inguruan sor daitezkeen auziak kontratazio organoak ebaziko ditu. Ebazpen horiek amaiera emango diote administrazio bideari. Administrazio bidea amaitzen duten erabakien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legediaren arabera, interesdunek 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen) 116 eta 117. artikuluek aurreikusten duten berraztertze errekurtsioa aurkezteko duten aukerari kalterik egin gabe.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## I. ERANSKINA

### ADIERAZPENA EGITEKO EREDUA

Nik, ....., adinez nagusi eta NAN ..... zenbakiaren jabeak, helbidea ..... dudalarik, ..... (Tel. ....; faxa .....), nire izenean edo ..... sozietatearen izenean (IFZ zenbakia ....., helbidea ....., tel. .... eta faxa .....), adierazten dut bai nik eta bai ordezkatzeko dudako sozietateak gaitasuna dugula administrazioarekin kontratatzeko, izan ere jarduteko gaitasuna dugu eta ez dugu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako debekurik. Halaber, berariaz adierazten dut ez dugula zigor irmorik lan segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste oso larriak egiteagatik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20 d) artikulua ezarritakoaren argitara.

Horrekin batera, honakoa ADIERAZTEN DUT:

- Indarrean dauden lege-xedapenak ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta ditut, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorraren (1098/2001 ED, urriaren 12koa) 13 eta 14. artikuluek aurreikusitako ondorioekin.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda nago, kontratuaren objektuari dagokion epigrafean eta ez dut bakarrik eman zerga horren matrikulan.

*(Lekua, data eta sinadura)*



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## II. ERANSKINA

### DIRU-ESKAINZA EGITEKO EREDUA

Nik,..... jaunak/andreak, adinez nagusiak,  
.....NAN zenbakiaren jabeak, helbidea ..... dudalarik, nire  
izenean (edo ..... sozietatearen izenean -helbidea  
..... eta IFZ .....- (pertsona fisikoa edo juridikoa  
izatearen arabera), jarduteko gaitasun juridikoa dudalarik, honakoa

### ADIERAZTEN DUT

- 1) Kontratua arautzen duten administrazio baldintza zehatzen orriak, eskakizun teknikoen orriak eta bestelako agiriak ezagutzen ditut eta oso-osorik onartzen ditut.
- 2) Ordezkatzen dudan enpresak irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dauden lege-xedapenek ezarritako eskakizun eta betebeharrak betetzen ditu.
- 3) Konpromisioa hartzen dut kontratuaren objektu den zerbitzua burutzeko honako prezioan (BEZa barne), baldintzen orrietako eskakizun eta baldintzei estu-estu jarraituz:

- .....euro/urtean  
(idatzita adierazi) , BEZa (%7) barne.

Urola Kostako Udal Elkarteari ..... euroko (BEZa barne) eskaintza egiten diot, erabiliko ez diren iglu edukiontzia eskuratzeko.

Prezio horietan sartuta daude kontzeptu guztiak, hala nola, zergak, gastuak, tasak, arlo guztietako zergak, BEZa eta kontratu jabearen irabazi industrialak.

- 4) Ordezkatzen dudan enpresak kontratu hori burutzeko indarrean dauden lege-xedapenek ezarritako eskakizun eta betebeharrak betetzen ditu.
- 5) Hitz ematen dut lan arloko eta zerga arloko araubideak ezarritako betebeharrak betetzeko.

(Lekua, data eta sinadura)

### III. ERANSKINA

#### ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHAR DITUZTEN AGIRIAK

Europar Batasunekoak diren eta espainiarrak ez diren enpresek honako agiriak aurkeztu behar dituzte "A" kartazalean:

1. Enpresa indibidualek beren herriko nortasun agiria aurkeztu behar dute. Europar Batasunekoak diren eta espainiarrak ez diren enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoaren Akordioa sinatutako herrietakoek, erregistroko inskripzioa edo martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuaren I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte.
2. Lehiatzailea bere izenean ari ez bada edo pertsona juridikoa baldin bada, askietsitako ahalordea aurkeztu behar du, era ofizialean euskarara eta gaztelaniara itzulita egongo dena.
3. Atzerriko enpresak aitortpena aurkeztu behar du, Espainiako epaitegi eta epaileen jurisdikzioa onartzen duela adierazten duena, eremua edozein dela ere, kontratutik zuzenean nahiz zeharka erator daitezkeen gorabehera guztiak ebazteko. Halaber adierazi behar du dagokion atzerriko jurisdikzioari uko egiten diola.
4. Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluko a), b), d), e), g), h), i), j) eta k) letretako egoeretan ez dagoela adierazten duen egiaztagiria.

Hori egiaztatzeko epaile aurreko lekukotza edo administrazio ziurtagiria aurkeztuko da, kasuan kasu. Eskumena duen aginteak agiri hori egin ezin badu, administrazio agintearen (notario publikoaren edo lanbide erakunde kualifikatuaren) aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da. Aginte judizial baten aurrean egindako erantzukizunpeko aitortpena ere aurkeztu ahal izango da, estatu horretako araubideak aukera hori ematen badu. Adierazpen horrek berariaz agertu behar du lehiatzailea ez dagoela zigortuta era irmoan lan segurtasun eta osasun arloan arau-hauste larriengatik.

5. Eskumena duen aginteak egindako ziurtagiria, euskarara eta gaztelaniara era ofizialean itzulia, enpresak zerga eta gizarte segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela ziurtatzen duena, kontratua esleituko duen agintearen estatuan indarrean dauden lege-xedapenen argitara.

6. Sailkapena eskatzen bada, Europar Batasunekoak diren baina espainiarrak ez diren enpresarioek aski dute, alde batetik, kaudimen ekonomikoa, finantza kaudimena eta kaudimen teknikoa egiaztatzea Kontratazio Organoaren aurrean, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 16 eta 17. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta, beste alde batetik, merkataritza eta lanbide erregistroko inskripzioa aurkeztea, enpresa ezarrita dagoen estatuko araubideak aurreikusitako baldintzekin.

Europar Batasuneko estatuak beren estatuko enpresen alde egindako sailkapen ziurtagiriek eta antzekoek gaitasunaren presuntzioaren balioa dute kontratazio organo ezberdinen aurrean honako artikuluekiko: 16.1 artikuluko b) eta c) letrak, 17. artikuluko b) eta c) letrak eta 20. artikuluko a), b), d) eta i) letrak.

7. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek honakoak egiaztatu behar dituzte, aurreko 6 ataletan adierazitakoez gain:

a) Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko ziurtagiria, dagokion Espainiako ordezkari diploma diplomatikoak egina. Ziurtagiri horrek honakoa adieraziko du: enpresa hori inskribatuta dagoela tokiko, lanbide edo merkataritza erregistroan edo baliokide den erregistroan; edo, bestela, ziurtagiriak adierazi beharko du enpresaren ohiko jarduna kontratuaren objektu den jarduera eremuan kokatzen dela.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

Kasu horietan, gainera, Espainiako ordezkari diplomatikoaren txostena erantsiko da, estatu horrek Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatzearen egoerari buruzkoa, edo, aurkako kasuan, b atalak aipatzen duen elkarrekikotasun txostena.

b) Enpresaren jatorri den estatuak administrazioarekin kontratazeko enpresa espainiarren parte hartzea antzera ahalbidetzen duela onartzea. Hori agertzeko, Espainiako ordezkari diplomatikoaren txostena aurkeztuko da.

c) Agiri bidez egiaztatuko du Espainian egoitza duen sukurtsal bat duela eta sukurtsal horretarako izendatuta dituela ordezkari eta ahalduak (izen-abizenak adieraziko dira).

d) Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela, bai sukurtsala, bai aurreko paragrafoan adierazitako ahalordeak.

e) Kontratuaren zenbatekoa (Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita) baldin bada Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 135.1 artikulua zehazten duen kopurua edo handiagoa, ez da eskatuko a) ataleko Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresei buruzko elkarrekikotasun txostenik.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

#### IV. ERANSKINA

### HIRI HONDAKINAK GAIKA BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUARI ATXIKITAKO LANGILEAK

Enpresa:

DESPANOR, S.L.  
CESPA, S.A.  
C/ Henao, 20  
48009 BILBAO

Lanei atxikitako langileak:

ZK.	Kategoria	Antzintasuna	Kontratu-mota	Asteko lan-orduak





UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## V. ERANSKINA

### LAN ARRISKUEN PREBENTZIORI BURUZKO BALDINTZEN ORRIAK

Baldintzen orrion helburua da Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo Udal Elkartearen aginduz beste leku batean zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu baten bidez diharduten kontratu jabeek lan arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten baldintzak finkatzea.

#### **I. KOMUNIKATZEKO BETEBEHARRA.**

##### **a) Eskaintza egiteko unean**

Kontratuaren jabeak bere eskaintzan honakoak adierazi behar ditu:

1. Bere enpresan indarrean dagoen prebentzioaren antolamenduaren deskribapena, enpresaren jardueran izaera orokorrarekin arriskuak prebenitzeko ezarritako kudeaketa-sistema.
2. Lan arriskuak prebenitzeko gaiak koordinatzeko eginkizuna duen arduraduna. Esleipendunak bere eskaintzan adierazi behar ditu:
  - i. Lan arriskuak prebenitzeko lanak koordinatzeko izendatutako pertsonaren datuak.
  - ii. Pertsona hori izendatzen duen enpresaren agiria.
  - iii. Ikasketen maila edo lan arriskuen prebentzioan dituen esperientzia urteak.

##### **b) Kontratua burutzen ari dela**

###### **b.1) Jarduerari ekin aurretik**

Jarduerari ekin aurretik kontratuaren jabeak honakoak jakinarazi behar dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteari:

1. Kontratutako zerbitzua dela eta egindako lan arriskuen prebentziorako plangintza (arriskuen ebaluazioa, segurtasun neurriak, babesteko ekipo indibidualak, taldeko babes ekipoak, prestakuntza...).
2. Zerbitzua burutzeko kontratuaren jabeak izendatutako arduraduna.
3. Zerbitzua burutzen parte hartuko duten langileen zerrenda nominala (azpikontratutako langileak eta autonomoak barne) honako datuekin: izen-abizenak, nortasun agiri nazionala, lanbide prestakuntza
4. Izendatutako arduradunak izango du zuzenean (kontratutako nahiz azpikontratutako enpresak barne) bere esanetara lanean ari direnek lan arriskuak prebenitzeko arauak bete eta betearazteko ardura.

Kontratuaren jabeak jarduerari ekin aurretik kontratua gauzatu eta honakoa egin behar du: gorago adierazitakoak bete eta A eranskina aurkeztu, eskatutako agiriekin batera.

###### **b.2) Zerbitzuak burutzen ari dela**

Zerbitzuaren objektu diren lanak egiten ari dela, kontratuaren jabeak izendatutako arduradunak honakoak komunikatuko dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteak izendatzen duen arduradunari:

1. Kontratuaren jabearen jardueran gertatzen diren aldaketa esanguratsuak, langileek zerbitzua uztea, beste langile bat atxikitzea, zerbitzua gertatzen diren bestelako gorabeherak. Idatzi horretan aldaketa premia adieraziko da, orden eta segurtasunari dagokionez.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

2. Kontratuari atxikitako langileek izandako istripu guztiak idatziz jakinaraziko zaizkio Urola Kostako Udal Elkarteari. Idatzi horretan istripuaren inguru-abarrak, lesioak, istripuaren arrazoiak eta hartutako neurriak adieraziko dira.

## **II. KONTRATATUTAKO ENPRESEN EGINBEHARRAK ZERBITZUA BURUTZEN ARI DIRELA**

1. Kontratuaren jabeak zerbitzuari atxikitako langileek prestakuntza egokia izango dute, eta, ziurtagiri ofizialak izango ditu (beharrezko denean) behar bezala eguneratuta. Langile horiek Urola Kostako Udal Elkartearentzat burutzen ari diren lanari buruzko prestakuntza eta argibide zehatzak jasoko dituzte, bereziki segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten alderdi guztietan.
2. Lan arloko agintek Urola Kostako Udal Elkarteari isunen bat jarriko balie kontratuaren jabearen enpresako langileek lan segurtasun eta osasun arloko neurriak ez betetzeagatik, Urola Kostako Udal Elkarteak eskubidea izango du kontratuaren jabearen aurka egoki irizitako lege-neurriak abian jartzeko.
3. Kontratuaren jabeak kontratatutako zerbitzuak burutzen erabiltzen dituen material eta banan-banako nahiz taldeko ekipo guztiek lan arriskuak prebenitzeko araubideak ezarritako baldintza guztiak beteko dituzte. Udal Elkartearen esku egongo dira baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko agiriak.
4. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen aginduz lanean ari den langile orok egiten ari den lanarekin bat datorren janzkera izango du, betiere egoera onean, garbi eta txukun.
5. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen aginduz lanean ari den langile oro behar bezala identifikatuta egongo da, bai eta zerbitzua burutzeko baliatzen dituen ekipoak ere.
6. Kontratuaren jabeak hileru Urola Kostako Udal Elkarteari bidaliko dio Udal Elkartearentzat eginiko lanetan gertatutako istripuen txosten ofizialaren kopia bat. Txosten horretan istripuak eta istripua eragin zezaketen gorabeherak adieraziko dira.  
Pertsona edo instalazioentzat esanguratsuak diren istripuen edo aurrerago larri edo oso larritzat jo litezkeen istripuak gertatu eta berehala jakinaraziko zaizkio Udal Elkarteari.
7. Kontratuaren jabeak Urola Kostako Udal Elkarteari bidali behar dizkio Gizarte Segurantzako, lan mutuako eta lan istripuen aseguruako kuotak egunean ordainduta dituela egiaztatzeko agiriak.
8. Kontratuaren jabeak ezingo ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen baimenik gabe. Lanak azpikontratatu badira, azpikontratutako enpresaren edo langile autonomoen betebeharrak agiri honetan kontratuaren jabearentzat ezarritako berberak izango dira. Udal Elkartearen aurrean kontratuaren jabea izango da betebehar horien eta ez betetzearen erantzule.
9. Urola Kostako Udal Elkarteak ikuskatze-lanak egin ahal izango dizkie azpikontratutako enpresei nahiz autonomoei.



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## A ERANSKINA:

### KONTRATATUTAKO ENPRESEN ESKAKIZUNAK

#### KONTRATATUTAKO EDO AZPIKONTRATUTAKO ENPRESAREN DATUAK

Enpresaren izena: \_\_\_\_\_

IFZ: \_\_\_\_\_ Jarduera: \_\_\_\_\_

#### Kontratatutako zerbitzua

--

#### Kontratu edo azpikontratutako zerbitzuaren arduraduna

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Lanpostua \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_

emaila \_\_\_\_\_

#### Lan segurtasun eta osasun arduraduna

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Lanpostua \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_

emaila \_\_\_\_\_

#### Prebentzio antolamenduaren modalitatea

Kanpoko prebentzio zerbitzua: \_\_\_\_\_

Izendatutako bertako langilea: \_\_\_\_\_

Bertako prebentzio zerbitzua: \_\_\_\_\_

Mankomunatutako prebentzio zerbitzua

Enpresarioak bere gain hartuta

#### Azpikontratatuak edo langile autonomoak

**Bai** (Bete azpikontraten edo autonomoen zerrenda)

**Ez**

#### JARDUERAREN HASIERAN AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

1. Kontratatutako/azpikontratutako zerbitzua burutuko duten langileen zerrenda (Bete langileen zerrenda nominala)
2. Lanari ekin aurreko hileko TC1 eta TC2ak (edo Gizarte Segurantzako altaren fotokopia langilea berria bada) eta langile guztien NAN fotokopiak.
3. Erantzukizun zibileko polizaren fotokopia
4. Kanpoko prebentzio zerbitzuarekin egindako hitzarmena; bertako prebentzio zerbitzuaren ziurtagiria edo izendatutako langilearen ziurtagiria
5. Osasun azterketen betebeharrak bete direla egiaztatzeko idatzizko ziurtagiria, kontratuari atxikitako



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

langileena, burutuko duten lanaren arriskuak aintzat hartuta.
6. Burutuko diren lanen arriskuen ebaluazioa eta prebentzio jardueraren plangintza.
7. Langileek burutu behar duten jarduera dela eta lan arriskuei buruzko prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen agiria.
8. Lanpostuan behar dituzten BBEak (banakako babes ekipoak) jaso dituztela egiaztatzeko agiriak.
<b>HILERO BIDALI BEHAR DIREN AGIRIAK</b>
1. Zerbitzuak burutzen dituzten langileen Gizarte Segurantzako likidazioen kopiak (TC1 eta TC2 ereduak). Hileko lehen hamar egunen barruan aurkeztuko dira.
2. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean ordainduta daudela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren ziurtagiria. Hileko lehen hamar egunen barruan aurkeztuko dira.
<b>OHARRAK</b>
Kontratutako/azpikontratutako enpresako arduradunak kontratuaren jabeari zerbitzuari atxikitako langileen inguruko gorabeherak jakinarazi behar dizkio (aldaketak, langile berriak...).
Kontratutako/azpikontratutako enpresak eskakizun horiek ez betetzea edo aldaketa, gorabehera edo istripuen berri ez ematea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da.
Kontratutako enpresako arduraduna:
<i>Izenpea eta zigilua</i>

